

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p><b>1. Zenbaki arrazionalak, irrazionalak eta errealak erlazionatu, euren arteko eragiketak (berreketa, erroketa) eta propietateak erabili informazioa biltzeko, aldatzeko eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzako problemak eta arlo zientifikoko problemak ebazteko.</b></p>	<p>1.1. Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak hautematen ditu. Zenbaki errealak identifikatzen ditu eta testuinguru desberdinetan erabiltzen ditu, kasu bakoitzean dagokion doitasuna aukeratuz eta zenbakiak zuzen errealean kokatuz.</p> <p>1.2. Zenbaki osoen eta zatikien eragiketak burutzen daki algoritmoak eta lehentasun-arauak egoki erabiliz. Argudio matematikoak era zuzenean eta idazkera egokiz adierazi ditu.</p> <p>1.3. Kalkulagailua erabiliz edozein motatako zenbakizko adierazpenen arteko eragiketak egiteko gai da.</p> <p>1.4. Berreketen propietateak ezagutzen ditu eta adierazpen konplexuak sinplifikatzeko erabiltzen ditu.</p> <p>1.5. Idazkera zientifikoko arauak aplikatzen ditu eta kalkuluak eguneroko bizitzako problemetan zuzen burutzen ditu.</p> <p>1.6. Ohiko magnitudeetan oinarritako unitate aldaketak burutzen ditu.</p> <p>1.7. Sistema bitarreko zenbakien baliokide hamartarra eta hamartarreko baliokide bitarra zuzen kalkulatzeko erabiltzen ditu.</p> <p>1.8. Erroketa-berreketa eragiketak definizioaren bitartez erlazionatzen eta eraldatzen ditu.</p> <p>1.9. Erroen arteko eragiketak kalkulatzeko erabiltzen ditu, erroen propietateak erabiliz: batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa, berreketa eta erroketa.</p> <p>1.10. Erroen bidez adierazitako adierazpenak sinplifikatzeko erabiltzen ditu.</p>
<p><b>2. Eragiketen propietateak eta identitate aljebraikoak baliatuz, lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta haiekin erlazionatutako problemak ebazteko.</b></p>	<p>2.1. Adierazpen aljebraikoak garatu, sinplifikatu eta faktorizatu ditu propietate egokiak baliatuz: banatze, elkartze eta trukatzeko propietateak.</p> <p>2.2. Polinomioen arteko eragiketa aljebraikoak ondo burutzen ditu: batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa. Identitate nabarmenak.</p> <p>2.3. Adierazpen aljebraiko konplexu batetik abiatuz, beharrezkoa den kasuetan identitateak eta eragiketen propietateak zuzen aplikatu ditu bigarren mailako ekuazioen adierazpen orokorrak lortzeko.</p> <p>2.4. Lehen eta bigarren mailako ekuazioak egoki ebazten ditu, metodo orokorra zein kasu partikularrak baliatuz.</p>
<p><b>3. Norberak sortutako problemak ebazteko ereduaren arabera, ekuazioekin erlazionatutako eguneroko bizitzako galderei eta zereginei aurre egin, teknika zehatzak baliatuz eta egiteko horretan irmoki jokatzeko.</b></p>	<p>3.1. Lehen eta bigarren mailako ekuazioekin erlazionatutako problemak modelizatu eta ebazteko ereduak jarraituz.</p>